

KONTROL EKONOMIKO NORMATIBORAKO MEMORIA EKONOMIKOA, ENPLEGUAREN EUSKAL LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU
SAILA

DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO

Orrialdea: 1/25



LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T3RG4-0Q7E

EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea> / <https://euskadi.eus/localizador>

SINATZAILE / FIRMANTE: FRANCISCO PEDRAZA MORENO | 2022/06/13 16:29:41

SINATZAILE / FIRMANTE: ALFONSO GURPEGUI RUIZ | 2022/06/13 16:46:42

1. Oinarriak

Ekainaren 30eko 14/1994 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoak, 25. artikuluan ezartzen duenaren arabera, kontrol ekonomiko-normatiboa aplikatuko zaie, onartzeko nahitaezko izapide gisa, eduki ekonomikoa duen araudia jasotzen duten lege-aurreproiektu eta proiektuei, bai eta dirulaguntza-programak eta horien deialdiak garatzeko ematen diren xedapenei ere.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egin beharreko fiskalizazioa egin dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/95 Dekretuaren 42. artikulua arabera, kontrol ekonomiko-normatiboaren mende dauden xedapen guztiekin batera, memoria bat aurkeztu behar da oinarriko dokumentu gisa, eta, gutxienez, honako hauek jaso behar dira bertan:

- a. Xedapena indarrean jartzeak aurrekontuetan eragingo dituen gastuen eta diru-sarrereren kuantifikazioa, arruntak direnak eta kapital-eragiketetatik datozenak bereizita, eta gastu edo diru-sarrera horien xedea azalduta.
- b. Aurrekontu-gastuen finantzaketa, berariaz aipatuta horren eraginpean dauden baliabideak eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrez aparteko finantzaketa-iturriak.
- c. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiak berezko dituen gaitan eta aurrekontu-araubidean eragina duten xedapeneko alderdien identifikazioa, xedapenaren aurrekariaren deskribapena eta xedapenaren beharrezko justifikazioa.
- d. Proposatutako xedapena hartzen duen aurrekontu-programa ekonomikoaren deskribapena, arau hori indarrean jartzeak eragingo dien helburuen, egintzen eta adierazlearen identifikazioa, eta hura aplikatzeak ekonomian eta gizartean izango dituen eraginaren ebaluazioa.
- e. Programen nahiz lortu nahi diren helburuen gauzatzeko eta betetze-mailaren ebaluazioa, dirulaguntza-programak garatzeko emandako arauak direnean, bai eta dirulaguntzen deialdiaren ebaluazioa ere, deialdi horiek aurreko ekitaldietan onartutakoen jarraipena direnean.

Aurrekontuetan, diruzaintzan edota kontabilitatean eragina duten espedientei dagokienez, aplikatzen diren arauetan xedatzen diren arabera egokitzat jotzen diren kontabilitateko agiriak ere aurkeztu beharko dira. Era berean, eskatzen da bidal daitezela proposatzen den erregulazioari indarra ematen dioten ildo nagusiak eta oinarri juridikoak ezagutzeko behar diren datu, txosten eta azterlan guztiak, bai eta txostena egiten laguntzen duten gainerako guztiak ere.

Enpleguaren Euskal Legearen aurreproiektua izaki 14/1994 Legeak 25. artikuluan eta urriaren 31ko 464/95 Dekretuak 41. artikuluan aipatzen dituzten xedapenetako bat, honako memoria ekonomiko hau egin da Kontrol Ekonomikoko Bulegoak dagokion kontrola egin dezan.

2. Xedapena indarrean jartzeak aurrekontuetan eragingo dituen gastuen eta diru-sarreraren kuantifikazioa, arruntak direnak eta kapital-eragiketetatik datozenak bereizita, eta gastu edo diru-sarrera horien xedea azalduta.

2.1. Gastuak

Lege-aurreproiektuaren artikuluen garapenaren arabera, legea indarrean jartzean sortuko diren gastuak honako titulu hauetan identifikatzen dira:

a. II. TITULUA. Enplegarritasuna hobetzeko eskubideak eta betebeharrak

Titulu horren esparruan, 9. artikuluan, 10. eta 11. artikuluetan, enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonaleko zerbitzuak emateko eskubide batzuk identifikatzen dira, bai eta enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua egiteko eskubide batzuk ere; eskubide subjektiboak direnez, langile-dotazioen gastuak sortuko dituzte, beharrezkoak baitira zerbitzu horiek bermatzeko, eta gastu horiek zuzenean lotuta egongo dira hartzaile izan daitezkeen bolumenarekin.

b. III. TITULUA Euskal Enplegu Sarea, prospekzio, informazio eta kudeaketarako tresna komunak eta zerbitzu-zorroa.

Titulu horretan, kapitulu hauek daude, besteak beste: “Euskal Enplegu Sarearen sorrera eta funtzionamendua”; “Zerbitzu-zorroa definitzea eta kudeatzea eta pertsona eta enpresa erabiltzaileak”; “Arreta, informazio eta prospekzio eta kudeaketarako tresna komunak”; “Enplegarritasuna hobetzeko programa osagarriak”, eta “Ikuskapena eta ordezkapena zerbitzua ematean”. Bada, kapitulu horietako artikuluen garapenean, hainbat motatako gastuak identifikatzen dira, hala nola pertsonalekoak, tresnetakoak eta abar. Horiek guztiak kontuan hartu beharko dira arauak indarra hartzen duenerako. Gastu horietako batzuei LANBIDEn aurrekontu arruntekin erantzungo zaie, eta beste batzuei, berriz, dagozkien aurrekontu-altak eman beharko zaizkie.

c. IV. TITULUA Eskumenak, gobernantza, plangintza eta partaidetza enplegu-politika publikoetan.

Titulu horrek eta hari dagozkion artikuluek “euskal enplegu sistema” garatzen dute, kontuan hartuta sistema horretako kideak, eginkizunak eta jarduerak garatzeko beharrezkoak diren elementuak. Sistema horren funtzionamenduak berekin ekarriko du organo eta erakundeen betebeharrak garatzeko euskarri- eta laguntza-gastuak egotea.

d. V. TITULUA Euskal Enplegu Sarearen enplegu-politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren ikerketa, berrikuntza eta ebaluazioa.

Aurreproiektuaren V. tituluak ikerketa-, berrikuntza- eta ebaluazio-eginkizunak jasotzen ditu, arauan identifikatutako jarduerak behar bezala gauzatzeko berezko eta beharrezko gisa. Eginkizun horietarako, gastuak egin beharko dira, bai langileen arloan, bai euskarri espezializatuen garapenean.

e. VI. TITULUA LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua

Arau horren VI. tituluak, 77. artikuluan (sorrerari, izaerari, egoitzari eta araubide juridikoari buruzkoa), aldaketa garrantzitsu bat sartzen du LANBIDEn: zuzenbide pribatuko ente publiko gisa sortzea. Gaur egun organismo autonomo gisa duen egoeratik egin beharreko aldaketak esanguratsuak dira, eta eragina izango dute alderdi instrumentaletan, antolamendukoetan, funtzionaletan eta, bereziki, aldaketaren kudeaketan, zenbait arlotan, hala nola ekonomia eta aurrekontua, langileen kudeaketa, kontratazioa, informatika eta komunikazioak, etab. Aldaketa horiek arau hau indarrean jartzearekin lotutako gastuak eragingo dituzte.

2.2. Diru-sarrerak.

Ez da diru-sarrerarik aurreikusten.

3. Aurrekontu-gastuen finantzaketa, berariaz aipatuta horren eraginpean dauden baliabideak eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrez aparteko finantzaketa-iturriak.

3.1. Gastuen finantzaketa.

2.1. puntuan (gastuak) adierazi bezala, lege-aurreproiektuaren zenbait titulu, kapitulu eta artikuluri aurreikusi zaizkio gastuak.

Hurrengo puntuetan identifikatuko diren gastuak finantzatzeko, enplegu-arloan eskumena duen sailak eta LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuak aurrekontu-programa eta kontu/partida hauek hartu dituzte aintzat:

- 3211 programa: Enplegua
- 3231 programa: Prestakuntza
- 3110 Programa: Egitura eta laguntza,

Puntu honetan, dagozkien inpaktuetan identifikatutako gastuak finantzatzeko aurrekontu-partidak identifikatzen dira:

- Langileen gastuen aurrekontua finantzatzeko, Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroko zerbitzuen kudeaketari dagokionez, lehendik dauden lanpostuetan, sortu berrietan edota lehendik dauden monografiak aldatzean, LANBIDERI esleitutako partida ekonomikoa hauek erabiliko dira: 41 3211 02. 1 eta 41.3110.01.1.
- Langileen gastuen aurrekontua finantzatzeko, ikuskatzeko ahalaren kudeaketa eta euskarrirako, IV. tituluko eremuen aholkularitza eta garapen instrumentalerako, bai eta V. tituluko gaien kudeaketa eta euskarrirako ere, lehendik dauden lanpostuetan, sortu berrietan edota lehendik dauden monografiak aldatzean, enpleguaren alorrean eskumena duen sailari esleitutako partida ekonomiko hau erabiliko da: 41 3211 02 1.
- III. tituluaren deskribatutako informazio-sistemen, tresnen, erreminten eta aplikazioen definizio funtzionalari eta garapen, mantentze eta eguneratzeari esleitutako aurrekontua finantzatzeko, Lanbideri esleitutako partida ekonomiko hauek erabiliko dira: 41 3110 01 60119/21/22. Orobat, eraldaketa digitalera zuzendutako hauek: 41 3110 01 24499 eta 41 3110 01 60100.
- III. eta IV. tituluetan jasotako eginkizunei euskarria emateko aholkularitza-zerbitzuen kontratazioari esleitutako aurrekontuari dagokionez, enpleguaren arloan eskumena duen Sailari esleitutako partida ekonomiko honen bitartez finantzatuko da: 03 3211 21 24.
- Enplegu eta garapeneko toki-planak egiteko toki-erakundeei emateko laguntza IV. tituluko plangintzaren eremuan eta hirugarren xedapen iragankorrean jasotzen da, eta horretarako esleitutako aurrekontua enpleguaren alorrean eskumena duen sailak sortutako partida berri baten bidez finantzatuko da.
- LANBIDE zuzenbide pribatuko ente publiko gisa sortzen da VI. tituluaren esparruan, eta horretarako izendatutako aurrekontua LANBIDERI esleitutako 41 3110 01 24 partida ekonomikoa bidez finantzatuko da, araubide hauetara egokitzeari dagokionez: ekonomia eta aurrekontua, langileen kudeaketa, kontratazioa, sistema informatikoak eta komunikazioak, etab.

3.2. Aurrekontuez kanpoko iturriak eta baliabideak.

Epigrafe honetan ez da aurreikusten inolako eraginik.

4. C. Aurrekarien deskripzioa eta xedapenaren beharraren justifikazioa, Euskal Autonomia Erkidegoko ogasun nagusiaren berezko gaitan eragina duten alderdiak aipatuta

4.1. Xedapenaren aurrekariak eta xedapenaren beharraren justifikazioa

4.1.1. Proposatutako araua gaitzen duten oinarri juridikoak

Enpleguaren Euskal Legerako oinarrien dokumentuan, honako hauei buruzko justifikazio-argudioak identifikatzen dira:

- Enplegu-politika aktiboen Europako, Estatuako, autonomia-erkidegoko eta tokiko esparrua
- Gaur egun Euskadin dagoen parte-hartze publiko-pribatuko ekosistema adierazgarria, “enpleguaren euskal sistema” eratzen duena, *de facto*.
- Enplegu-politikak eta haien zehaztapena zerbitzu-zorroan, eta kudeaketa-premia hainbat erreferentzia-mailatik: berrikuntza, sareko lana, etab.

Aurrekari horiekin batera, eta aurreproiektua gaitzen duen justifikazio gisa, honako hauetara jo behar da, estatu-mailan:

- Konstituzioak 149. artikuluan ezartzen du Estatuak duela laneko legeriaren arloko eskumen eskusiboa, alde batera utzi gabe autonomia-erkidegoetako organoek gauzatzea hura.
- Enplegu Legeak (3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako testu bategina) arkitektura marrazten die Enplegu Sistema Nazionalari eta maila instituzional desberdinetan koordinatutako eta lankidetzan oinarritutako enplegu-politikei; egin-eginean ere, honela definitzen du enplegu-politika, 1. artikuluan: Estatuak eta autonomia-erkidegoek hartutako erabaki multzo bat da, programa eta neurri batzuk garatzea helburu duena, haien bidez enplegu osoa eta kalitatezkoa lortzeko, enplegu-eskaintzak eta -eskariak kuantitatiboki eta kualitatiboki egokitzeko, langabezia-egoerak gutxitzeko eta horietan behar den babesa emateko; eta 3. artikuluan, berriz, autonomia-erkidegoei dagokiela beren lurralde-eremuan enplegu-politika garatzea, enplegua sustatzea eta lan-legeria eta eskualdaturiko programa eta neurriak betetzea; edo, 4. artikuluan, enplegu-politikak tokikotasuna kontuan izan beharko duela bere diseinuan eta kudeaketa-ereduan, lurraldearen beharretara doitu dadin eta, hartara, tokian-tokian enplegua sortzeko ekimenak faboratu eta lagundu ditzan. Hartara, Espainiako Konstituzioaren, autonomia-estatutuen eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen arabera, autonomia-erkidegoek toki-erakundeekin lankidetzan aritzeko mekanismoak ezarri ahal izango dituzte enplegu-politika aktiboen zerbitzuak eta programak gauzatzeko, eta toki-erakundeek enplegu-politika aktiboak lurraldean hitzartzeko prozesuan parte hartu ahal izango dute; horretarako erakundeek parte hartzeko organo autonomikoetan ordezkatuta egon beharko dute, eta horietan parte hartu. 6. artikuluan, azkenik, Enplegu Sistema Nazional deszentralizatua ezartzen du, Estatuako Enplegu Zerbitzu Publikoak eta autonomia-erkidegoetako enplegu-zerbitzu publikoek osatua.
- 1441/2010 Errege Dekretua, EAERI eskualdatzekoa lan-arloko legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak, lanaren, enpleguaren eta prestakuntzaren esparruan.

EAEEn.

- Autonomia Estatutua (3/1979 Lege Organikoa). 9 artikuluan xedatzen du euskal botere publikoek, nork bere eskumen-alorretan, bizi- eta lan-baldintzak hobetzeko politika bultzatuko dutela, eta neurriak hartuko dituztela enplegua eta egonkortasun ekonomikoa areagotzeko. 10. artikulua xedatzen du eskumen eskusibo hau: Euskal Herriko ekonomiaren sustapena, garapena eta plangintza, ekonomiaren antolamendu orokorarekin bat. 12. artikulua araberak, EAeri dagokio lan-legeriaren alorreko betearazpen-eskumena. Ekonomia Itunaren funtsezko printzipio bat ere jasotzen du, Konstituzioak babestua, zeinaren bitartez lurralde historikoetako erakunde eskumendunek zerga-arabidea mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dute beren lurraldean, eta, burujabetza fiskal horretatik, beren baliabideekin finantzatu Estatuak eskualdatutako eskumenak. Horrela, enplegurako politika aktiboetarako baliabide ekonomikoak ez datoz Enplegu eta Lan Gaietako Konferentzia Sektorialak adostutako funts-banaketatik, baizik eta kupoaren murrizketatik, hura kalkulatzeko erabilitako egozpen-indizeari dagokion ehunekoa aplikatuta.
- 3/2011 Legea, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua sortzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politika aktiboaren zuzeneko kudeaketa ahalbidetzen duena.
- 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, enplegu-politikak eta -planak biltzen dituen udalerriek eskumen propioak gara ditzaketen eremuen artean.

4.1.2. Proposatutako araudiaren aurrekariak.

Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du lan-arloko legeria betearazteko lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan, baina ez du lege-mailako esparru juridikorik.

Kontuan hartu behar da lege-aurreproiektu hau egiteko gogoeta eta arau-garapenerako ahalegin garrantzitsuak izan zirela, eta ez zutela aurrera egin, azken lau legegintzaldietan hasi baziren ere.

Inguruabar horiekin batera, eta XII. Legegintzaldiko (2020/2024) Gobernu Programaren esparruan, lankidetzak ekimen batzuk ezarri ziren enplegu-politiken inguruan, politika horien osotasunaren eta berritzearen edo hobekuntzaren beharra agerian uzten zutenak:

- Susperraldi Ekonomikorako eta Enplegurako Sailarteko Esparru-programa prestatzea, eta harekin lerrotutako enplegu-plana onartzea, gobernuaren logikatik beharrezkoa den zeharkako ikuspegi horren erakusgarri.
- Zailtasun handiagoak dituzten kolektiboek enplegua lortzea, tokiko eta eskualdeko enplegu-planen bidez, foru-aldundiekin eta toki-administrazioekin lankidetzan. Erakundearen arteko artikulazioaren beharra erakusten du horrek.
- Gizarte-elkarrizketan sakontzea eta euskal enpresan eredu parte-hartzaile inklusibo bat sustatzea, lan-harremanen euskal sistema indartuta eta Gizarte Elkarrizketarako Mahaiko lantaldeak indartuta, gai sorta zabal baten inguruan.
- Eta ekimen osagarrien ildo oso bat garatzea, kalitatezko enplegua, ekintzailtza, gizarte-ekonomia eta abar bultzatzearekin lotuta, eragile publiko eta pribatuaren sorta zabal bat lotzen duena.

Eta enplegu-politikak integratu eta hobetzeko esparru bat, enplegurako gobernantza integraleko eredu berria bultzatuta, zehazki, Euskal Enplegu Sistema integral eta aktibatzailea eratzeko legearen bidez, LANBIDE ardatz egituratzaile izango duena, lan-merkatutarako orientazioa ezaugarritzat hartuta, eta arreta handiagoa jarrita enpresetan eta pertsonengan; arretarako eta esku-hartzeko zerbitzu pertsonalizatuaren garapena indartuta, teknologia digital

berrietan oinarritutako enplegurako prestakuntza-sistema integral batekin; konpetentzia profesionalen eta enpleguen etorkizuneko eskariak identifikatzeko behatokia eratuta; eta enpresekiko eta prestakuntza-zentroekiko lankidetzaz bultzatuta.

4.1.3. Beharrianaren justifikazio ekonomikoa

Ekonomiari dagokionez, Enpleguaren Euskal Legearen beharrianaren justifikazioa baliabideen koordinazioa eta optimizazioa bermatuko duen esparru juridikorik ezean oinarritzen da.

4.1.4. Beste araugintza-saio batzuen gaineko eragin ekonomikoa

Enpleguaren Euskal Legearen aurreproiektuak ez du eragin ekonomikorik, ez behintzat zuzenekorik, beste arau-ekimen batzuetan; beraz, ez da azterketa hori egin behar.

4.2. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren berezko gaietan eta aurrekontu-araubidean eragina duten xedapeneko alderdien identifikazioa

4.2.1. Eragin ekonomikoa duten aurreproiektuaren tituluak.

- a. II. TITULUA. Enplegarritasuna hobetzeko eskubideak eta betebeharrak
- b. III. TITULUA Euskal Enplegu Sarea, prospekzio, informazio eta kudeaketarako tresna komunak, zerbitzu-zorroa eta enplegarritasuna hobetzeko programa osagarriak.
- c. IV. TITULUA Eskumenak, gobernantza, plangintza eta partaidetza enplegu-politika publikoetan.
- d. V. TITULUA Euskal Enplegu Sarearen enplegu-politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren ikerketa, berrikuntza eta ebaluazioa
- e. VI. TITULUA. LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua

Aurreproiektuaren funtzio bultzatzailea nabarmendu behar da. Arau honen artikuluen garapenari zuzenean egotz dakiokeen eragin ekonomikoa azpimarratuko bada ere, nabarmendu behar da ezen, profil egituratzailea eta berritzailea duenez, zeharkako eragin ekonomikoa izango duela. Eragin hori LANBIDEren aurrekontu arruntetan zehaztuko da batez ere, eta hurrengo urteetarako oinarritzko enplegu-zerbitzu gisa eraldatzera bideratuko ditu.

Jarraian, arau honek jorrotutako esparruen hartzaile diren pertsona eta enpresei dagokienez testuinguruan kokatzeko, estatistikoki aztertzen dira aurreproiektuak eragindako kolektibo nagusien egoera eta bilakaera.

1. taula. Biztanleria aktiboaren bilakaera, sexuaren eta jarduerarekiko loturaren arabera

	2022ko 1. hiruhilekoa			2019ko 4. hiruhilekoa			Saldoa			% Bilakaera		
	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira
Landunak	499.318	454.530	953.848	496.780	448.718	945.498	2.538	5.812	8.350	0,51	1,30	0,88
Langabeak	46.501	48.736	95.237	46.111	51.006	97.117	390	-2.269	-1.880	0,85	-4,45	-1,94
Ez aktiboak	348.140	465.548	813.688	345.594	462.986	808.580	2.545	2.563	5.108	0,74	0,55	0,63
Guztira	893.959	968.815	1.862.773	888.486	962.710	1.851.195	5.473	6.105	11.578	0,62	0,63	0,63

Iturria: EUSTAT. Egileek prestatua.

2. taula. Biztanleria aktiboaren bilakaera, adinaren eta jarduerarekiko loturaren arabera

		16-24 urte	25-29 urte	30-54 urte	55-64 urte	65 urte baino gehiago	Guztira
		2022ko 1. hiruhilekoa	Landunak	47.161	76.052	611.995	204.844
	Langabeak	9.970	11.095	54.631	19.145	397	95.237
	Ez aktiboak	127.247	15.917	81.611	101.830	487.083	813.688
	Guztira	184.378	103.063	748.237	325.819	501.276	1.862.773
2019ko 4. hiruhilekoa	Landunak	32.717	71.958	641.781	190.978	8.064	945.498
	Langabeak	9.470	14.853	56.773	15.482	539	97.117
	Ez aktiboak	131.818	14.979	77.438	107.489	476.856	808.580
	Guztira	174.005	101.791	775.992	313.948	485.459	1.851.195
Saldoa	Landunak	14.444	4.094	-29.786	13.866	5.731	8.350
	Langabeak	500	-3.759	-2.142	3.663	-142	-1.880
	Ez aktiboak	-4.571	937	4.173	-5.659	10.227	5.108
	Guztira	10.373	1.273	-27.755	11.871	15.816	11.578
% Bilakaera	Landunak	44,15	5,69	-4,64	7,26	71,07	0,88
	Langabeak	5,28	-25,30	-3,77	23,66	-26,35	-1,94
	Ez aktiboak	-3,47	6,26	5,39	-5,26	2,14	0,63
	Guztira	5,96	1,25	-3,58	3,78	3,26	0,63

Iturria: EUSTAT. Egileek prestatua.

3. taula. Biztanleria landunaren bilakaera, sexuaren eta jarduerarekiko loturaren arabera

		2022ko 1. hiruhilekoa			2019ko 4. hiruhilekoa			Saldoa			% bilakaera		
		Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira
Jatorria	Estatukoa	454.073	419.715	873.788	460.640	413.585	874.224	-6.567	6.130	-436	-1,43	1,48	-0,05
	Atzerritarra	45.246	34.815	80.060	36.141	35.133	71.274	9.105	-319	8.786	25,19	-0,91	12,33
Ikasketa maila	Lehen mailako ikasketak edo gutxiago	118.300	75.551	193.850	126.022	88.274	214.296	-7.723	-12.723	-20.446	-6,13	-14,41	-9,54
	Bigarren mailako eta erdi mailako ikasketak	207.558	147.406	354.964	193.987	142.271	336.258	13.571	5.135	18.705	7,00	3,61	5,56
	Goi mailako ikasketak	173.461	231.573	405.034	176.771	218.173	394.944	-3.310	13.400	10.091	-1,87	6,14	2,55
Adina	16-24 urte	26.386	20.776	47.161	16.135	16.583	32.717	10.251	4.193	14.444	63,53	25,29	44,15
	25-29 urte	42.385	33.667	76.052	37.330	34.628	71.958	5.055	-961	4.094	13,54	-2,78	5,69
	30-54 urte	315.914	296.082	611.995	336.320	305.461	641.781	-20.406	-9.379	-29.786	-6,07	-3,07	-4,64
	55-64 urte	106.933	97.911	204.844	101.948	89.029	190.978	4.985	8.882	13.866	4,89	9,98	7,26
	65 urte baino gehiago	7.700	6.095	13.795	5.047	3.017	8.064	2.653	3.078	5.731	52,58	102,00	71,07
	Guztira	499.318	454.530	953.848	496.780	448.718	945.498	2.538	5.812	8.350	0,51	1,30	0,88

Iturria: EUSTAT. Egileek prestatua.

4. taula. Biztanleria langabearen bilakaera, sexuaren eta jarduerarekiko loturaren arabera

		2022ko 1. hiruhilekoa			2019ko 4. hiruhilekoa			Saldoa			% bilakaera		
		Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira
Jatorria	Estatukoa	36.140	35.975	72.115	34.459	42.291	76.749	1.681	-6.316	-4.635	4,88	-14,93	-6,04
	Atzerritarra	10.361	12.762	23.122	11.652	8.715	20.367	-1.291	4.046	2.755	-11,08	46,43	13,53
Ikasketa maila	Lehen mailako ikasketak edo gutxiago	13.385	15.192	28.576	17.131	15.418	32.549	-3.746	-226	-3.973	-21,87	-1,47	-12,21
	Bigarren mailako eta erdi mailako ikasketak	24.072	20.370	44.441	22.015	19.292	41.307	2.057	1.078	3.135	9,34	5,59	7,59
	Goi mailako ikasketak	9.044	13.175	22.220	6.965	16.296	23.261	2.080	-3.121	-1.041	29,86	-19,15	-4,48
Langabeziaren iraupena	Epe laburreko langabeak	23.516	21.530	45.046	27.046	26.672	53.718	-3.530	-5.142	-8.672	-13,05	-19,28	-16,14
	Epe luzeko langabeak	22.985	27.206	50.191	19.065	24.334	43.399	3.920	2.872	6.792	20,56	11,80	15,65
Adina	16-24 urte	5.429	4.542	9.970	4.533	4.937	9.470	896	-396	500	19,76	-8,01	5,28
	25-29 urte	4.365	6.730	11.095	7.296	7.558	14.853	-2.931	-828	-3.759	-40,17	-10,95	-25,30
	30-54 urte	27.802	26.828	54.631	27.049	29.724	56.773	753	-2.896	-2.142	2,79	-9,74	-3,77
	55-64 urte	8.574	10.570	19.145	6.858	8.623	15.482	1.716	1.947	3.663	25,02	22,58	23,66
	65 urte baino gehiago	331	66	397	375	164	539	-44	-98	-142	-11,84	-59,51	-26,35
	Guztira	46.501	48.736	95.237	46.111	51.006	97.117	390	-2.269	-1.880	0,85	-4,45	-1,94

Iturria: EUSTAT. Egileek prestatua.

5. taula. Erregistratutako langabeziaren bilakaera

		2019*	2020*	2021*	2022 apirila
Sexua	Gizonezkoa	51.168	58.898	51.231	50.070
	Emakumezkoa	62.994	70.342	63.614	65.484
Adina	16-24 urte	7.879	10.708	8.818	9.639
	25-34 urte	20.401	24.011	19.428	19.234
	35-44 urte	27.679	30.728	25.800	25.056
	45-54 urte	28.711	32.060	28.824	28.874
	55-64 urte	29.492	31.733	31.975	32.751
Langabeziaren iraupena	Epe luzeko langabeak	55.344	67.516	58.405	57.958
	Epe laburreko langabeak	58.818	61.724	56.440	57.596
Ezgaitasuna	EZ	111.990	127.033	109.049	109.549
	BAI	2.172	2.207	5.796	6.005
Total		114.162	129.240	114.845	115.554

Iturria: LANBIDE

*abenduko datuak

6. taula. Eskatzaileak LANBIDEN

		Eskatzaileak guztira					
		gizonezkoak	emakumezkoak	guztira	gizonezkoak	emakumezkoak	guztira
Adin tartea	<20	2.484	1.675	4.159	1,8%	0,9%	1,3%
	20tik 24ra	9.350	9.392	18.742	6,6%	5,1%	5,7%
	25tik 29ra	12.757	15.638	28.395	9,0%	8,5%	8,7%
	30tik 34ra	13.170	18.113	31.283	9,3%	9,8%	9,6%
	35tik 39ra	14.860	20.396	35.256	10,5%	11,1%	10,8%
	40tik 44ra	18.012	24.605	42.617	12,7%	13,4%	13,1%
	45tik 49ra	19.608	26.418	46.026	13,8%	14,3%	14,1%
	50tik 54ra	18.638	24.620	43.258	13,1%	13,4%	13,3%
	55tik 59ra	17.631	22.040	39.671	12,4%	12,0%	12,2%
>59	15.322	21.272	36.594	10,8%	11,6%	11,2%	
Sektorea	Lehen sektorea	4.140	1.304	5.444	2,9%	0,7%	1,7%
	Eraikuntza	14.949	2.419	17.368	10,5%	1,3%	5,3%
	Industria	28.332	12.892	41.224	20,0%	7,0%	12,6%
	Zerbitzuak	85.747	153.098	238.845	60,5%	83,1%	73,3%
	Aurreko enplegurik gabe	8.664	14.456	23.120	6,1%	7,8%	7,1%
Eskatutako lanbideak (*)	Zuzendariak	4.708	3.839	8.547	3,3%	2,1%	2,6%
	Teknikari eta Zientzialariak	22.489	42.103	64.592	15,9%	22,9%	19,8%
	Laguntzarako teknikariak	41.115	47.739	88.854	29,0%	25,9%	27,3%
	Langile administrariak	17.290	49.164	66.454	12,2%	26,7%	20,4%
	Zerbitzuetako beste kualif.	43.460	114.912	158.372	30,6%	62,4%	48,6%
	Nekazaritza eta Arrantza	10.971	3.085	14.056	7,7%	1,7%	4,3%
	Industriako kualifikatuak	53.970	10.723	64.693	38,1%	5,8%	19,8%
	Makineriako operadoreak	38.028	7.996	46.024	26,8%	4,3%	14,1%
	Oinarrizko okupazioak	84.272	97.767	182.039	59,4%	53,1%	55,8%
	Indar armatuak	133	59	192	0,1%	0,0%	0,1%
Jatorria	Atzerritarra	20.628	23.951	44.579	14,5%	13,0%	13,7%
	Estatukoa	121.204	160.218	281.422	85,5%	87,0%	86,3%
Langabeziaren iraupena	Iraupen luzeko langabezia	62.613	82.319	144.932	44,1%	44,7%	44,5%
	Iraupen laburreko langabezia	79.219	101.850	181.069	55,9%	55,3%	55,5%
Prestazioen kobrantza	Sorospena	8.772	10.257	19.029	6,2%	5,6%	5,8%
	TEA	934	1.201	2.135	0,7%	0,7%	0,7%
	Prestazioa	12.645	14.093	26.738	8,9%	7,7%	8,2%
Ikasketa maila	Oinarrizkoak	81.124	89.895	171.019	57,2%	48,8%	52,5%
	Batxillera	13.708	18.539	32.247	9,7%	10,1%	9,9%
	LH	30.190	39.845	70.035	21,3%	21,6%	21,5%
	Unibertsitatekoak	16.810	35.890	52.700	11,9%	19,5%	16,2%
Total		141.832	184.169	326.001	100,0%	100,0%	100,0%

Iturria: LANBIDE 2022ko apirilko datuak

(*) Eskatzaile batek gehienez 6 okupazio eska ditzake; atal honetan guztiak hartzen dira kontuan.

7. taula. Gizarte Segurantzako afiliazioa

		2019*	2020*	2021*	2022 apirila
Sexua	Gizonezkoa	511.776	499.045	508.322	511.384
	Emakumezkoa	468.815	460.085	471.700	471.104
Adina	16-24 urte	46.594	39.845	47.848	48.199
	25-34 urte	160.722	152.779	157.074	157.770
	35-44 urte	272.765	258.113	250.764	247.908
	45-54 urte	294.870	295.922	304.014	305.669
	55-64 urte	194.465	200.435	207.313	209.518
	> 64 urte	11.176	12.036	13.006	13.425
Guztira		980.592	959.132	980.022	982.490

Iturria: LANBIDE * Abenduko datuak

8. taula. Titular eta onuradun ezberdinen kopurua, sexuaren arabera, 2021ean

Titularrak		Onuradunak		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Adina	16-34 urte	4.520	6.679	11.201
	35-44 urte	7.317	10.275	17.592
	45-54 urte	7.963	9.029	16.992
	55-64 urte	6.225	6.042	12.268
	>65 urte	3.202	7.395	10.597
	Tartetik kanpo	3	48	51
Guztira		29.230	39.468	68.701

		Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Adina	16-34 urte	11.171	10.540	21.711
	35-44 urte	7.266	7.482	14.748
	45-54 urte	2.193	2.285	4.478
	55-64 urte	1.539	1.503	3.042
	>65 urte	881	1.046	1.927
	Tartetik kanpo	550	931	1.481
Guztira		23.600	23.787	47.387

Iturria: LANBIDE

9. taula. Establezimenduak eta enplegatutak EAEn, lurralde historikoaren eta eskualdearen arabera

	Establezimenduak	Pertsona enplegudunak
Euskal Autonomia Erkidegoa	169.897	909.442
<i>Lurralde Historikoak</i>		
Araba/Álava	24.299	151.448
Bizkaia	88.375	455.715
Gipuzkoa	57.223	302.279
<i>Eskualdeak</i>		
Añana	663	3.728
Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	2.036	8.051
Arabako Kantaurialdea / Cantábrica Alavesa	2.232	12.703
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	17.958	119.145
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	388	1.473
Arratia-Nerbioi / Arratia-Nervión	1.754	7.967
Bidasoa Beherea / Bajo Bidasoa	6.343	26.384
Bilbo Handia / Gran Bilbao	67.506	352.887
Debarrena / Bajo Deba	3.845	21.018
Debagoiena / Alto Deba	3.784	30.581
Donostialdea	28.831	149.832
Duranga/Dea / Duranguesado	7.054	46.083
Enkartzioak / Encartaciones	2.577	8.067
Gernika-Bermeo	3.237	13.545
Goierrri	4.635	26.872
Gorbeialdea / Estribaciones del Gorbea	880	4.881
Markina-Ondarroa	1.774	8.316
Plentzia-Mungia	4.264	16.764
Tolosaldea	3.754	18.817
Urola Kosta	5.832	26.599
Araba/Álava zehaztu gabea	142	1.467
Bizkaia zehaztu gabea	209	2.086
Gipuzkoa zehaztu gabea	199	2.176

Iturria: EUSTAT. 2021/01/01

Informazio estatistikotik eta zerbitzu-zorroaren hartzaile diren pertsona eta enpresen neurria kuantifikatzen duten iturri nagusien erregistro administratiboetatik abiatuta ulertu ahal izango da zer baliabide ekonomiko, pertsonal eta denborazko behar diren Jaurlaritzak zehaztutako enplegu-politika gauzatzeko eta enplegu-zerbitzu publiko bat eskaintzeko, biak ere administrazioaren oinarrizko zerbitzuen zutabeak.

a. Enplegarritasuna hobetzeko eskubide eta betebeharrekin lotutako eragin ekonomikoa. Arauaren II. titulua.

a.1. 10. artikulua. Enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala egiteko eskubidea.

Enplegu-zerbitzuen zorro komunaren definizioen eta ezaugarrien arabera, Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzu Zorro Komunaren (CCSSNE) protokoloak garatzeko erreferentziazko gida teknikoan jasota baitaude (BOE, 91. zk., 2018ko apirilaren 14koa), diagnostiko pertsonalak barne hartuko du erabiltzaileari arreta espezifiko ematea, haren trebetasunak, gaitasunak, prestakuntza eta esperientzia, interesak, familia-egoera eta balizko lanbide-aukerak identifikatzeko, bai eta jarduera hori garatzen duen protokolo espezifikoan garrantzitsutzat jotzen diren beste aldagai guztiak ere. Informazio hori erabiltzailearen profila egiteko eta daukan enplegarritasunaren arabera sailkatzeko erabiliko da.

Baliabide pertsonalen beharrak kalkulatzeko, honako kalkulu hau egiten da:

- Diagnostikoa egiteko batez besteko denbora. Kontuan hartuta denbora hori diagnostikatutako pertsonaren ezaugarri pertsonalekin eta laneko ezaugarriekin zuzenean lotuta dagoela, arreta emateko batez besteko denbora ordubeteko dela identifikatu da.
- Zerbitzuaren prestazioa eska dezaketen pertsonak. Helburua hau hartu da erreferentziazkat: erregistratutako langabeen % 100ek 2 urtean diagnostikoa izatea. Erregistratutako langabeen kopurua: 115.000 (57.500 urteko)

Ateratako emaitza LANBIDEk eskaini behar dituen orduen zenbaketa izango da. Ordu kopuru hori 1.200ekin zatituko da (zerbitzuko profesional batek, dedikazio eskusiboarekin, Administrazio Orokorreko urteko lanaldiko 1.592 orduetatik eskainiko lituzkeen orduen zenbatespena, kontuan hartuta kudeaketa-, analisi- eta tratamendu-denborak), eta horrek zehaztuko du zenbat profesional behar diren prestaziorako.

Profesionalen kopurua honako hau izango da: 48

Eskubide subjektibotzat hartuta, arau honen esparruan diagnostiko pertsonala egiteak ekarriko duen eragin ekonomikoa deuseza izango da, baldin eta kontuan hartzen bada "Dimensionamiento de LANBIDE-Servicio Vasco de Empleo 2022" izeneko dokumentu erantsian LANBIDErentzat identifikatutako dotazioen bolumena.

Garapen instrumentalen beharrezan eragin ekonomikoa b.2.1 puntuan jasotzen da.

a.2. 11. artikulua. Enplegu-plan integratua eta pertsonalizatua egiteko eskubidea.

CCSSNEren definizioen eta ezaugarrien arabera, enplegu-plan integratua eta pertsonalizatuaren bitartez, erabiltzailearen profilaria, beharrezan eta aurreikuspenei erreparatu ondoren, erabiltzaile horrek enplegua eskura dezan egokien irizten den ibilbidea sortuko da, eta hari modu ziur batean komunikatuko zaio. Ibilbide hori sortzeko, irizpide teknikoak eta estatistikoak erabiliko dira, eta, horrez gainera, ekintza nagusi batzuk, haiek egiteko egutegia eta haiei egiaztapena eta jarraipena egiteko elementuak zehaztuko dira.

Ibilbide hori egiteko, enplegu-akordio pertsonal bat sinatu beharko dute erabiltzaileak eta enplegu-zerbitzu publikoak. Ibilbide horrek, gutxienez, honako hauek bildu beharko ditu:

- Aukera profesionalak identifikatzea, abiapuntutzat hartuta azterketa arrazoitu bat, erabiltzaileak zer enplegu-aukera duen, bere lanbide-profilaren arabera eskuratzeko modukoa, Espainian, EBko gainerako estatuetan eta nazioartean.
- Prestakuntza-ibilbide bat identifikatzea, erabiltzailearen profilaren arabera beharrezkoa denean. Horretarako, erabiltzailearen gaitasunak eta lanbide-kualifikazioa hobetzeko egokiak diren prestakuntza-ekintzak edo lan-esperientzia edo prestakuntza ez-formala egiaztatzen diren ekintzak proposatu dira.
- Erabiltzaileak bere profilaren arabera egin behar dituen enplegu-bilaketa aktiboko jardunak identifikatzea.
- Etengabeko jarraipena eta urteko ebaluazioa.

Eragin ekonomikoa kalkulatzeko, honako osagai hauek hartzen dira kontuan:

- Enplegu-plan integratua eta pertsonalizatua egiteko batez besteko denbora. Kontuan hartuta denbora hori diagnostikatutako pertsonaren ezaugarri pertsonalekin eta laneko ezaugarriekin zuzenean lotuta dagoela, arreta emateko batez besteko denbora hau identifikatu da: 2 ordu, plana egiteko, eta urteko 2 ordu, jarraipenerako eta ebaluaziorako. Guztira, 4 ordu.
- Zerbitzuaren prestazioa eska dezaketen pertsonak. Helburua hau hartu da erreferentziatuz: erregistratutako langabeen %100ek 2 urtean plan pertsonal integrala izatea. Erregistratutako langabeen kopurua: 115.000 (57.500 urteko)

Ateratako emaitza Sareak/LANBIDEk eskaini behar dituen orduen zenbaketa izango da. Ordu kopuru hori 1.200ekin zatituko da (zerbitzuko profesional batek, dedikazio eskusiboarekin, Administrazio Orokorreko urteko lanaldiko 1.592 orduetatik eskainiko lituzkeen orduen zenbatespena, kontuan hartuta kudeaketa-, analisi- eta tratamendu-denborak), eta horrek zehaztuko du zenbat profesional behar diren prestaziorako.

Profesionalen kopurua honako hau izango da: 192

Eskeututako subjektibotzat hartuta, arau honen esparruan plan integratu eta pertsonalizatua emateak ekarriko duen eragin ekonomikoa deuseza izango da, baldin eta kontuan hartzen bada "Dimensionamiento de LANBIDE-Servicio Vasco de Empleo 2022" izeneko dokumentu erantsian LANBIDErentzat identifikatutako dotazioen bolumena.

Garapen instrumentalen beharrezko eragin ekonomikoa b.2.1 puntuan jasotzen da.

b. Eragin ekonomikoa: Euskal Enplegu Sarearen sorrera eta funtzionamendua, arreta, informazio eta prospekziarako tresna komunak eta zerbitzu-zorroa. Arauaren III. titulua.

Aurreproiektuaren III. tituluko artikuluei lotutako eragin ekonomikoari dagokionez, bost kapitulu hartu behar dira kontuan:

b.1. Euskal Enplegu Sarea

b.2. Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa zehaztea eta kudeatzea

b.3. Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren arreta, informazio eta prospekzio eta kudeaketarako tresna komunak.

b.4. Enplegarritasuna hobetzeko programa osagarriak

b.5. Ikuskapena eta ordezkapena zerbitzua ematean

b.1. Euskal Enplegu Sarearen sorrera eta funtzionamendua

b.1.1. 15. artikulua. Euskal Enplegu Sarea Lehen funtzionamendu-urterako aholkularitza-zerbitzu espezializatuak. Lehenengo funtzionamendu-urteko eragin ekonomikoa: 500.000 euro

15. artikulua definitu duenez, Euskal Enplegu Sarea izaera juridikorik gabeko lankidetzatresna bat da, eta honako hauek osatzen dute: LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuak, foru-aldundiak, udalerriek, bakoitzaren sektore publikoko erakundeak eta zerbitzu-zorroa, enplegarritasuna hobetzeko programa osagarriak eta kideak enpleguaren arloan adosten dituzten ekintza guztiak kudeatzen dituzten gainerako erakundeak. Azken batean, enplegu-politika aktiboaren agerpenetan *de facto* esku hartzen duten eragileen multzoa.

Sareak protokoloen definizioa beharko du, prozedurak prestatzea, informazio-sistema administratiboak, funtzionamendu harmonizatua errazte aldera. Sareak identifikazio- eta kidetasun-elementuak beharko ditu, lehen aipatutako sistemak bildu, eta "gutxieneko erregelamendu-garapen" bat zehaztuko dutenak, honako hauek barne hartuta: Sarearen berariazko intraneta, zerbitzuen eta tresnen eskuliburuen garapena, gutxieneko jarraipen- eta auditoretza-sistemak, logotipoak eta seinaleak, barne-arreta eta -euskarria, koordinazio-prozesuak, harrera-jarduerak, kide izateko konpromisoa eta Sarea osatuko duten erakundeetan aldaketak kudeatzeko aukera emango duten guztiak.

500.000 euroko partida aurreikusten da aholkularitza-zerbitzuetarako, enpleguaren arloan eskumena duen Sailak adierazitako eremuei erantzuteko.

b.1.2. 17. artikulua. Leihatila bakarra

Bere aldetik, 17. artikulua (leihatila bakarra) dioenez, Euskal Enplegu Sarearen leihatila digital bakarria sortuko da, Sarearen zerbitzu-zorroa bitarteko elektronikoen bidez emateko, bitarteko horiek zerbitzuaren izaerarekin eta edukiaren bateragarriak diren heinean. LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatu eta mantenduko du leihatila bakar hori.

Eragin ekonomikorik ez duela jotzen da. Zerikusia duten kudeaketa- eta informazio-tresnen definizio funtzionalak eta garapena eta eguneratzea kontuan hartzen dira LANBIDEn antolamendu-eraldaketan eta eraldaketa digitalean, Hobetzen proiektuak bultzatzen baitu. LANBIDEn ohiko aurrekontuan sartuko da.

b.2. Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa zehaztea eta kudeatzea

Kapitulu honen eragin ekonomikoa identifikatzeko, bi eremu hartuko dira kontuan: lehena, enpleguaren arloan eskumena duen Sailak eta LANBIDEk izan behar dituzten langile-dotazioen identifikazioa, zorro-zerbitzuen eta pertsona eta enpresa erabiltzaileen eskubideen bermatzaile gisa. Alde horretatik, adierazi behar da pertsona eta enpresa erabiltzaileek eskubidea dutela erreferentziarako profesional bat esleitu dakien. Betebehar hori objektibatzeke, erakunde eskudunek gomendatutako langile-ratioak hartuko dira kontuan, bai eta beste enplegu-zerbitzu publiko batzuen jardunbide egokiekiko arteko konparazioak ere. Bigarren eremuan, aholkularitza garatzeko kostuak, hala teknologikoak nola funtzionalak.

b.2.1. 22. artikulua. Euskal Enplegu Sarearen mapa. Lehen funtzionamendu-urterako aholkularitza-zerbitzu espezializatuak. Lehenengo funtzionamendu-urteko eragin ekonomikoa: 100.000 euro

Euskal Enplegu Sarearen mapak enplegu-zerbitzuak emateko lurralde-egitura optimoa definituko du, kontuan hartuta biztanleria, demografia- eta lurralde-ezaugarriak, profesional bakoitzeko gehieneko biztanleria-ratioak, beharrezko ekipamenduen esparru orokorra eta pertsona eta enpresa erabiltzaileekiko hurbiltasun handiena bermatu beharra. Mapa hori aldizka eguneratu behar da.

Eginkizun hori garatzeko, enpleguaren arloan eskumena duen sailak aholkularitza-zerbitzu espezializatuen laguntza izan behar duela uste da.

b.2.2. 24. artikulua. Enplegurako orientazioko zerbitzua. Lehenengo funtzionamendu-urteko eragin ekonomikoa: 200.000 euro

Orientazio-zerbitzuaren osagai nagusiak dira: triajea, diagnostiko pertsonalizatua, enplegu-plan integratua eta pertsonalizatua, enplegu-zentroen arreta.

Eragin ekonomikoa, langile-kostuen eremua, triajea.

Eragin ekonomikoa kalkulatzeko, honako osagai hauek hartzen dira kontuan:

- Triajea egiteko batez besteko denbora. Kontuan hartuta denbora hori diagnostikatutako pertsonaren ezaugarri pertsonalekin eta laneko ezaugarriekin zuzenean lotuta dagoela, arreta emateko batez besteko denbora 30 minutukoa dela identifikatu da.
- Zerbitzuaren prestazioa eska dezaketen pertsonak. Helburua hau hartu da erreferentziazat: erregistratutako langabeen % 100ek triajea aplikatua izatea 3 urteren buruan. Erregistratutako langabeen kopurua: 115.000 (38.333 urteko)

Ateratako emaitza Sareak/LANBIDEk eskaini behar dituen orduen zenbaketa izango da. Ordu kopuru hori 1.200ekin zatituko da (zerbitzuko profesional batek, dedikazio eskusiboarekin, Administrazio Orokorreko urteko lanaldiko 1.592 orduetatik eskainiko lituzkeen orduen zenbatespena, kontuan hartuta kudeaketa-, analisi- eta tratamendu-denborak), eta horrek zehaztuko du zenbat profesional behar diren prestaziorako.

Profesionalen kopurua honako hau izango da: 16

Arau honen esparruan, triaje-osagaia emateak ekarriko duen eragin ekonomikoa deuseza izango da, baldin eta kontuan hartzen bada "Dimensionamiento de LANBIDE-Servicio Vasco de Empleo 2022" izeneko dokumentu erantsian LANBIDErantzat identifikatutako dotazioen bolumena.

Eragin ekonomikoa, aholkularitza-kostuen eremua, triajea

Ez du eragin ekonomikorik; osagai horren euskarria IDSBESren legearen esparruan garatuko da.

Eragin ekonomikoa, langile-kostuen eremua, diagnostiko pertsonalizatua

Memoria honen a.1 puntuan kalkulatu da.

Eragin ekonomikoa, aholkularitza-kostuen eremua, diagnostiko pertsonalizatua

Ez du eragin ekonomikorik. Diagnostikorako tresna eguneratzea eta hobetzea LANBIDEn antolamendu-eraldaketan eta eraldaketa digitalean aurreikusi da, Hobetzen proiektuak bultzatzen baitu. LANBIDEn ohiko aurrekontuan sartuko da.

Eragin ekonomikoa, langile-kostuen eremua, plan integratu eta pertsonalizatua

Memoria honen a.2 puntuan kalkulatu da.

Eragin ekonomikoa, aholkularitza-kostuen eremua, plan integratu eta pertsonalizatua

Ez du eragin ekonomikorik. Plan integratu eta pertsonalizatua eguneratzea eta hobetzea LANBIDEn antolamendu-eraldaketan eta eraldaketa digitalean aurreikusi da, Hobetzen proiektuak bultzatzen baitu. LANBIDEn ohiko aurrekontuan sartuko da.

Eragin ekonomikoa, langile-kostuen eremua, enplegu-zentroak abian jartzea.

Gaur egun, enplegu-zentroen eredua ez dago ezarrita LANBIDEn enplegu-bulego bakar batean ere.

Laguntza-eginkizunetan diharduten profesionalen ikuspegitik, bulego bakoitzean jarduera hori profil teknikoek egin dezaketela uste da, eta pertsona baten urteko lanaldiaren laurdena dela. Kontuan hartuta enplegu-zentroen eredua ezarri beharko litzatekeen bulegoen kopurua (42) eta ordu-dedikazioa, 16.716 orduko dedikazio-ratioa ateratzen da, eta, urteko 1592 orduko lanaldiaren ratioa kontuan hartuta, 25 III-C mailako 10 teknikari-lanpostu sartu beharko lirateke.

Profesionalen kopurua honako hau izango da: 10

Arau honen esparruan, enplegu-zentroen arreta-osagaia emateak ekarriko duen eragin ekonomikoa deuseza izango da, baldin eta kontuan hartzen bada “Dimensionamiento de LANBIDE-Servicio Vasco de Empleo 2022” izeneko dokumentu erantsian LANBIDEntzat identifikatutako dotazioen bolumena.

Eragin ekonomikoa, baliabide materialak egokitzeko kostuen eremua, enplegu-zentroak. Lehenengo funtzionamendu-urtea: 200.000 euro

Puntu honetan, hauek hartu behar dira kontuan kostu-zenbatespenean: LANBIDEn bulegoak lan- eta kontsulta-ekipoz hornitzea, bai eta haiei dagozkien altzariz ere.

Kostu horien zenbatespena etorkizuneko enplegu-bulegoen eredian garatzeko bideragarritasunaren mende dago, bereziki eskueran dauden espazio fisikoei dagokienez.

b.2.3. 25. artikulua. Laneko lanbide-prestakuntza-zerbitzua.

Ez du eragin ekonomikorik. Hala prestakuntza-eskaintza nola hari lotutako kudeaketa- eta informazio-tresnak eguneratzea eta hobetzea kontuan hartzen dira LANBIDEn antolamendu-eraldaketan eta eraldaketa digitalean, Hobetzen proiektuak bultzatzen baitu. LANBIDEn ohiko aurrekontuan sartuko da.

b.2.4. 26. artikulua. Bitartekaritza-zerbitzua eta enplegua aurkitzeko zerbitzua.

Ez du eragin ekonomikorik. Hala aldaketa funtzionalak nola hari lotutako kudeaketa- eta informazio-tresnak eguneratzea eta hobetzea kontuan hartzen dira LANBIDEn antolamendu-eraldaketan eta eraldaketa digitalean, Hobetzen proiektuak bultzatzen baitu. LANBIDEn ohiko aurrekontuan sartuko da.

b.2.5. 27. artikulua. Autoenplegurako eta ekintzailetzarako aholku-zerbitzuak.

Ez du eragin ekonomikorik. Hala aldaketa funtzionalak nola hari lotutako kudeaketa- eta informazio-tresnak eguneratzea eta hobetzea kontuan hartzen dira LANBIDEn antolamendu-eraldaketan eta eraldaketa digitalean, Hobetzen proiektuak bultzatzen baitu. LANBIDEn ohiko aurrekontuan sartuko da.

b.2.6. 28. artikulua. Enpresei aholku emateko zerbitzua.

Aurreproiektuaren testuan jasotako zerbitzu horren osagaien esparruan, bi dira eragin ekonomikoa dutenak:

- Erakundeak enplegu-zerbitzu publikoaren erabiltzailetzat hartzeak, pertsonen maila berean, eraldaketa sakona eskatzen du LANBIDEn enplegu-bulegoetan, eremu funtzionalei eta langile espezializatuen dotazioari dagokienez.
- Enplegatzaileen beharrak aztertzea eta identifikatzea. Jarduera hori CCSSNEn jasotzen da, eta honako hauek bilduko ditu: Enplegatzaileen enplegu-eskaintza potentzialak eta pertsonal-beharrizanak aztertzea eta identifikatzea. Horretarako, enpresak bisitatuko dira, solaskidetzak sistematikoa izango da enpresaburuen elkarrekin, sindikatuekin eta toki-korporazioekin, eta azterlanak eta lan teknikoak egingo dira. Enplegu-zerbitzu publikoek kudeatzen ez dituzten enplegu-eskaintzak erakartzea, eta horretarako, enprekin harreman estua izatea, bereziki enpresa txikiekin, enplegu-eskaintzak sor daitezen sustatzeko, enplegu-zerbitzu publikoek kudeatzen ez dituztenak barne.

Gainerako osagaiei dagokienez, ez da eragin ekonomikorik identifikatu.

*Eragin ekonomikoa, **langile-kostuen eremua, enpresei aholkularitza ematea eta enpresen prospekzioa.***

- Enpresei aholkularitza emateko batez besteko denbora. Kontuan hartuta denbora hori zuzenean lotuta dagoela aholkularitza eman zaion enpresaren ezaugarri sektorialekin, dimentsioarekin eta antolamenduarekin, kalkulatu da enpresa bakoitzeko batez besteko aholkularitza-denbora ordubete dela.
- Prospekziarako batez besteko denbora. Honako hauek hartzen ditu barne: prestaketa-kudeaketa guztiak, egin daitezkeen joan-etorriak, aurrez aurreko bisita, eta informazioa kargatu eta arazteko ondorengo lanak. Prospekzio-denbora unitarioa 4 ordukoa izango dela kalkulatu da.

Kontuan hartuta ez enpresei aholkularitza emateko zerbitzurako, ez prospekzio-zerbitzurako, ez dagoela helburu definiturik ez EEEn, ez EEPn, ez aurreproiektuan, memoria ekonomiko honetan egindako planteamendua gutxi gorabeherakoa da, Europako zerbitzu publikoen ratioetatik urrun badago ere. Bi zerbitzuei eragingo lieke batera (teknikari bat, 16 langile baino gutxiagoko enplegu-bulego bakoitzeko, eta bi, 16 langile edo gehiagokoetarako, 2021. urtearen amaieran).

- 15 langile baino gehiagoko 21 bulego: 2 lanpostu = teknikari lanpostuen 42 dotazio berri.
- 16 langile baino gutxiagoko 21 bulego: Lanpostu 1 = teknikari lanpostuen 21 dotazio berri

Profesionalen kopurua honako hau izango da: 63

Arau honen esparruan, enpresei aholkularitza- eta prospekzio-zerbitzua emateak ekarriko duen eragin ekonomikoa deuseza izango da, baldin eta kontuan hartzen bada “Dimensionamiento de LANBIDE-Servicio Vasco de Empleo 2022” izeneko dokumentu erantsian LANBIDEntzat identifikatutako dotazioen bolumena.

*Eragin ekonomikoa, **aholkularitza-kostuen eremua, enpresei aholkularitza ematea eta enpresen prospekzioa.***

Ez du eragin ekonomikorik. Hala aldatzea funtzionalak nola hari lotutako kudeaketa- eta informazio-tresnak garatu, eguneratu eta hobetzea kontuan hartzen dira LANBIDEn antolamendu-erlaketan eta eraldaketa digitalean, Hobetzen proiektuak bultzatzen baitu. LANBIDEn ohiko aurrekontuan sartuko da.

b.2.7. 29. artikulua. Lan-merkatuari buruzko informazio-zerbitzu aurreratua

Ez du eragin ekonomikorik. Hala aldaketa funtzionalak nola hari lotutako kudeaketa- eta informazio-tresnak garatu, eguneratu eta hobetzea kontuan hartzen dira LANBIDEn antolamendu-eraldaketan eta eraldaketa digitalean, Hobetzen proiektuak bultzatzen baitu. LANBIDEn ohiko aurrekontuan sartuko da.

b.2.8. 31. artikulua. Pertsona eta enpresa erabiltzaileen eskubideak.

Aurreproiektuaren artikulua honetan, zerbitzua emateko baliabideak izan beharko dituzten bi osagai identifikatzen dira: erreferentziako profesionala esleitzea eta lan-historia bakarra sortzea.

Erreferentziako profesionalaren esleipenari dagokionez, kontuan hartu behar den gaia ez da, hainbeste, pertsonen eta enpresen "bezero-zorroak" eratzea eta erreferentziako profesionali esleitzea, Europako enplegu-zerbitzuetan zabalduetako antolakuntza-modu interesgarri gisa, baizik eta "bezero-zorro" horien arrazoizko dimentsionamendua. Pertsonen kasuan, erreferentziako adierazlea LANBIDEn izena emanda dauden eskatzaileena izango litzateke, haien lan-egoera edozein izanda ere: 326.000, gaur egun. Alde batera utzita LANBIDEk arreta eman beharreko pertsonen fluxua kontrolatzeko aukera emango dion estrategia proaktiboa definitzea, egia esan, adierazitako eskatzaile-bolumenak baliabide profesionalen dimentsionamendu egokia eskatzen du edozein egoera erreaktibori aurre egiteko. Nolanahi ere, bai gaur egungo egoera, "Dimensionamiento de LANBIDE-Servicio Vasco de Empleo 2022" izeneko dokumentu erantsian agertzen dena, urrun daude Europako gomendio honetatik: profesional orientatzaile bat 100 enplegu-eskatzaileko.

Azterketa hori enpresa erabiltzaileetara hedatu behar da: nahiz eta enpresa-establezimenduen erreferentziak bezero potentzialen unibertso bat identifikatzen digun, zaila da enpresa erabiltzaileen erreferentzia kuantifikatzea, Hobetzen ereduaren aplikazioaren mende baitago. Nolanahi ere, berriz ere Europako enplegu-zerbitzuen batez bestekotik oso urrun dauden ratioak izango genituzke.

Errealitate hori kontuan hartuta, erreferentziako profesionala esleitzeak arau honen esparruan ekarriko duen eragin ekonomikoa deuseza izango da, baldin eta kontuan hartzen bada "Dimensionamiento de LANBIDE-Servicio Vasco de Empleo 2022" izeneko dokumentu erantsian LANBIDEntzat identifikatutako dotazioen bolumena.

Zerbitzu-zorrotan erabiltzen duten pertsona fisikoen eskubideei dagokienez, laneko historia bakarra, alderdi hauei buruzko informazio garrantzitsu guztia bilduko duena: triajea, erabiltzailearen enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonalizatua, enplegu-plan integratua eta pertsonalizatua, egindako jarduketak, enplegu-eskaintzak, sinatutako kontratuak, prestazioak edo subsidioak (halakorik jaso badu), eta Euskal Enplegu Sarea osatzen duten erakundeen esku-hartze guztien jarraitutasuna eta osagarritasuna lortzeko garrantzitsua den gainerako informazioa. Erregelamendu bidez ezarriko dira lan-historia bakarra egiteko, kontserbatzeko, erantzukizunak hartzeko eta erabiltzeko arauak.

Tresna hori LANBIDEn garatuta ez badago ere, indarrean sartzeak inskribatutako eskatzaile guztientzat lan-historia bakar hori izan beharra ekarriko luke, eta, beraz, arau-proiektu honi lotutako eragin ekonomikorik gabe, tresna horren garapena LANBIDEn antolamendu-aldaketan eta eraldaketa digitalean txertatuko da, Hobetzen proiektuak bultzatzen baitu. LANBIDEn ohiko aurrekontuan sartuko da.

b.3. Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren arreta, informazio eta prospekzio eta kudeaketarako tresna komunak.

b.3.1. 36. artikulua. Arreta eta jarraipenerako tresna komuna

Bermatu egiten du sistemaren integrazioa eta bateragarritasuna Enplegu Sistema Nazional osorako abian jarri diren eta indarrean dauden informazio-sistemekin eta azpiegiturekin. Kontzeptuari begiratuta, elementu batzuen multzoa da (hardwarea, softwarea, komunikazioak, elkarrengarritasuna, protokoloak, datu-ereduak), jarduerari eta kudeaketari buruzko informazioa biltegitatu, tratatu eta banatzeko aukera ematen duena, eta barruko eta kanpoko erabiltzaileei aukera ematen diena haien beharrezan araberako interfazeetara iristeko. Euskal Enplegu Sarearen informazio-sistema izango da.

Sistema hori LANBIDEn garatuta ez badago ere, indarrean sartzean, nahitaez beharko litzateke Euskal Enplegu Sarearen funtzionamendu eraginkorrerako, eta, beraz, arau-proiektu honi lotutako eragin ekonomikorik gabe, tresna horren garapena LANBIDEn antolamendu-aldaketan eta eraldaketa digitalean txertatuko da, Hobetzen proiektuak bultzatzen baitu. LANBIDEn ohiko aurrekontuan sartuko da.

b.3.2. 37. artikulua. Enplegu-, prestakuntza- eta zerbitzu-eskaintzen informazio eta kudeaketarako tresna

Aurreproiektuaren funtzio bultzatzailea azpimarratu behar da. Enpleguaren Euskal Legearen arabera, enplegu-eskaintza guztiak (publikoak zein pribatuak), prestakuntza eta enplegu-politika aktiboek lotutako beste zerbitzu batzuk integratzeko tresna bat egon behar da. Tresna horri esker, Enpleguaren Euskal Sareko erakundeek gordailu bakar batean bildu ahal izango dituzte beren jarduera guztiak, pertsonak eta enpresek ezagutu ditzaten.

Tresna hori halakotzat garatuta ez badago ere LANBIDEn, indarrean sartzean, nahitaez beharko litzateke Euskal Enplegu Sarearen funtzionamendu eraginkorrerako, eta, beraz, arau-proiektu honi lotutako eragin ekonomikorik gabe, tresna horren garapena LANBIDEn antolamendu-aldaketan eta eraldaketa digitalean txertatuko da, Hobetzen proiektuak bultzatzen baitu. LANBIDEn ohiko aurrekontuan sartuko da.

b.3.3. 38. artikulua. Profilatze tresna

Kontzeptualki, tresna horrek zenbait "osagai" biltzen ditu: enplegarritasun-testa, profilaketa estatistikoa, profilaketa holistikoa eta beste batzuk.

Enpleguaren Euskal Sarearen tresna komun gisa bultzatzen denez, arau indarrean jartzen denerako garatu behar da. Tresna hori zati batean hedatuta dago LANBIDEn, eta, beraz, garapen ebolutiboa behar du, aurreproiektuari lotutako eragin ekonomikorik gabe, eta LANBIDEn antolamendu-aldaketan eta eraldaketa digitalean integratzen da, Hobetzen proiektuak bultzatzen baitu. LANBIDEn ohiko aurrekontuan sartuko da.

b.3.4. 39. artikulua. Enpleguaren eta Prestakuntzaren Euskal Behatokia

Artikulu honetan deskribatutako antolamendu- eta funtzio-alderdiek beste jarduera bat ekarriko diote LANBIDEn Kabinete Teknikoaren zerbitzuak gaur egun garatzen duenari. Zerbitzu horretan sartuko dira arau honetan lan-merkatuari buruz deskribatutako informazio-eginkizun gehienak. Arau horri lotutako eragin ekonomikoa ezdeusa izango da, baina aldatu egin beharko dira Kabinete Teknikoaren antolamendua eta LPZ, bi arlo desberdin sortuz, bakoitza bere koordinatzailearekin.

b.4. Enplegarritasuna hobetzeko programa osagarriak

b.4.1. 45. artikulua. Enplegarritasuna hobetzeko programa osagarriak

Eragin ekonomikoko planteamendu bat egiteko, gogoeta hauek egingo ditugu:

- Programei buruzkoak. Funtsean, orientazio-zerbitzuan jasotako zenbait jarduera aplikatuko dira, lehenasunezko kolektiboen ezaugarrietara egokituak.
- Kolektiboari buruzkoak. Haien ezaugarriek eta dimentsio kuantitatiboak izango dute eragin handiena aurreikuspen ekonomikoetan.

Metodologiari dagokionez, zaila da eragin ekonomiko bat zehaztea, aldez aurretik mugatu gabe lehenasunezko arretako kolektiboaren dimentsioa. "Osagarritasun"-ikuspegiak eta egoeraren araberako izaerak esan nahi dute ez dela aurreikusten arau horri lotutako eragin ekonomikorik, eta LANBIDEn ohiko aurrekontuekin egingo litzaiokeela aurre.

b.4.2. 46. artikulua. Konpetentziak ebaluatzeko programa.

Eragin ekonomikoko planteamendu bat egiteko, gogoeta hauek egingo ditugu:

- Konpetentziak ebaluatzeko zerbitzuari eusteko tresnak ez du eragin ekonomikorik izango, LANBIDEn aurrekontu-zuzkidurekin eta haren antolamendu-aldaketekin eta eraldaketa digitalekin garatzen delako.
- Hauek dira prestazio-modalitateak: a) norberak erabiltzea (eragin ekonomikorik gabe), b) Sareko profesionalen laguntzarekin (eragin ekonomikoarekin).

Sareko profesionalaren laguntza duen modalitatean, honako hauek hartu behar dira kontuan eragin ekonomikoan:

- Konpetentzien ebaluazioa egiteko batez besteko denbora. Kontuan hartuta denbora hori diagnostikatutako pertsonaren ezaugarri pertsonalekin eta laneko ezaugarriekin zuzenean lotuta dagoela, batez besteko denbora ordubeteko delako identifikatu da.
- Zerbitzuaren prestazioa eska dezaketen pertsonak. Helburua hau hartu da erreferentziatzat: erregistratutako langabeen % 100ek 2 urtean konpetentzien ebaluazioa eginda izatea. Erregistratutako langabeen kopurua: 115.000 (57.500 urteko)

Ateratako emaitza LANBIDEk eskaini behar dituen orduen zenbaketa izango da. Ordu kopuru hori 1.200ekin zatituko da (zerbitzuko profesional batek, dedikazio eskusiboarekin, Administrazio Orokorreko urteko lanaldiko 1.592 orduetatik eskainiko lituzkeen orduen zenbatespena, kontuan hartuta kudeaketa-, analisi- eta tratamendu-denborak), eta horrek zehaztuko du zenbat profesional behar diren prestaziorako.

Profesionalen kopurua honako hau izango da: 48

Arau honen esparruan, konpetentzien ebaluazio-zerbitzua emateak ekarriko duen eragin ekonomikoa deuseza izango da, baldin eta kontuan hartzen bada "Dimensionamiento de LANBIDE-Servicio Vasco de Empleo 2022" izeneko dokumentu erantsian LANBIDEntzat identifikatutako dotazioen bolumena.

b.4.3. 47. artikulua. Konpetentziak eguneratzeko programa

Programa hau konpetentziak ebaluatzeko programari lotuta dago, eta eguneratzea eta gaikuntza eskaintzen ditu ebaluazio negatiboa duten konpetentzietarako. Horretarako, konpetentziak eguneratzeko programak prestakuntza-eskaintza bat bermatuko du, euskal lan-merkatuko lanbide guztien konpetentzia nagusiei lotua. Lan-merkatuak eskatzen dituen konpetentzia nagusiei lotutako prestakuntza- eta irakaskuntza-edukiak garatzeko programa bat abian jartzeak eragin ekonomikoa izango du, baina ez da aurreproiektu honen mende jarri behar, baizik eta LANBIDEn eta Hezkuntza Sailaren ardurapeko lanerako prestakuntza-eskaintzaren aurrekontuen mende.

b.4.4. 48. artikulua. Lan-merkatu arruntean babesa eta laguntza duten enplegu-programak.

Desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu-programak eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuentzako enplegu lagunduko programak abian jartzeak ez du eragin ekonomikorik izango, eta aurrekontu arruntari lotuta egongo da enpleguko eta prestakuntzako aurrekontu-programetan.

b.4.5. Ikuskapena eta ordezkapena zerbitzua ematean. Urteko eragin ekonomikoa: 180.750 euro

Arauk titulu honetako V. kapituluaren aurreikusten ditu, 49-52 artikuluetan, Euskal Enplegu Sareko entitateek lege honetan eta lege hau garatzeko araudian ezarri diren baldintzak eta betebeharrak betetzen dituztela ikuskatzeko eta kontrolatzeko ahalarekin zerikusia duten alderdiak; batez ere, hauek direla eta: zorroaren zerbitzu bakoitzaren prestazio-eduki teknikoa, jardunaren printzipio informatzaileen errespetua, pertsona eta enpresa erabiltzaileek sartzeko dituzten betekizunak, lege honetan eta enpleguari buruzko estatuko legerian ezarritako eskubide eta betebeharrak, enplegarritasuna hobetzeko programa osagarrien edukia, eta erregelamenduz definituko den Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzu-prestazioaren mapa.

Urteko Ikuskaritza Planaren jardun potentzialen irismena lotuta dago zerbitzu-zorria kudeatzen duen Enpleguaren Euskal Sarean parte hartzen duten erakundeen kopuruarekin eta kudeatutako jardueren eta programen bolumenarekin. Ondorio ekonomikoak zenbatesteko, eszenatoki hau proposatzen da:

- Jardueren eta programen 600 ikuskapen, urteko
- Gutxienez Sareko erakundeen % 33ri eragitea.

Ikuskapen-eszenatoki hori gauzatuz gero, langile espezializatuak beharko lirateke, egiturazko 3 dotazio inguru. Profesionalen kopuru horri 25 III-C mailako teknikarien soldata-kostu eguneratua aplikatuko zaio, eta horren emaitzak markatuko du eragin ekonomikoa. Langile hori enpleguaren arloan eskumena duen sailaren egiturazko plantillan sartuko litzateke.

Profesionalen kopurua honako hau izango da: 3

c. Eskumenak, gobernantza, plangintza eta partaidetza enplegu-politika publikoetan. Arauaren IV. titulua.

Aurreproiektuaren V. tituluko artikuluei lotutako eragin ekonomikoari dagokionez, hiru kapitulari eragiten zaie:

- c.1. Gobernantza
- c.2. Plangintza
- c.3. Parte-hartzea

c.1. Gobernantza

c.1.1. 63. artikulua. Aholkularitza, laguntza teknikoa eta administratiboa. Urteko eragin ekonomikoa: 241.000 euro

Arauaren kapitulu hau funtsezkoa da Enpleguaren Euskal Sareak behar bezala funtziona dezan. Bertan, partaidetza, plangintza estrategikoa, arrazionalizazioa, koordinazioa eta ebaluazioa bermatuko dituzten organoak sortzen dira. Organo horiek dira: Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseilua eta Enpleguko Batzorde Teknikoa. Jarduera gauzatzeak eta eginkizunak betetzeak aholkularitza tekniko eta administratiboaren euskarria eskatzen du.

Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren eginkizunak 59. artikuluko a)-g) letretan jasota daude, eta jarduera bizia, askotarikoa eta iraunkorra eskatzen dute. Organo horren funtzionamendua bermatzeko, arauaren 62. artikuluan jasotzen dira aholkularitza eta laguntza teknikoa eta administratiboa.

Euskarri tekniko horren eragin ekonomikoari dagokionez, egiturazko 4 dotazio sartzeari kalkulatzen da. Profesionalen kopuru horri 25 III-C mailako teknikarien soldata-kostu eguneratua aplikatuko zaio, eta horren emaitzak markatuko du eragin ekonomikoa. Langile hori enpleguaren arloan eskumena duen sailaren egiturazko plantillan sartuko litzateke.

Profesionalen kopurua honako hau izango da: 4

c.2. Plangintza

Kapitulua honek hiru plangintza-osagai identifikatzen ditu:

- Enpleguaren Euskal Estrategia, sei urtekoa
- Euskadiko Enplegu Plana, hiru urtekoa
- Enplegurako eta garapenerako toki-planak

Lehenengo biak Eusko Jaurlaritzaren eta enpleguaren arloan eskumena duen Sailaren eginkizunen parte dira gaur egun; plangintzaren hirugarren osagaia da arau honen ekarpen gisa sartzen dena.

Arau honen esparruan, enplegurako eta garapenerako toki-planak funtsezko tresna dira udal-eremuak eta udalez gaindiko eremuak enplegu-politika publikoetan parte hartzeko.

c.2.1. 70. artikulua. Enplegurako eta garapenerako toki-planak. Urteko eragin ekonomikoa: 7.435.058

Arau honek, IV. titularen garapenean, funtsezkotzat jotzen du tokiko eremuaren parte-hartzea enplegu-politika publikoen gobernantzan eta plangintzan. Parte-hartze hori gauzatzeko oinarrizko tresna dira enplegurako eta garapenerako toki-planak. Tresna hori garatzeko, eragindako udal-egiturek eta udalaz gaindiko egiturek 70. artikuluko 2. puntuko a)-f) letretan jasotako jarduerak gauzatu behar dituzte. Jarduketara horiek jarduera bizia, askotarikoa eta iraunkorra eskatzen dute.

Eragin ekonomikoaren planteamendua egiteko, kontuan hartu behar da 70. artikuluan eta hirugarren xedapen iragankorrean adierazitakoa. Bertan, tokiko erakunde bakoitzak Enplegurako eta Toki Garapenerako Lankidetzara Funtsetik jasoko dituen ekarpenak zehazten dira. Xedapenean identifikatutako aplikazio-irizpideek eragin ekonomikoa kalkulatzen laguntzen dute, eta erreferentzia gisa hartu behar dira, eta ez egikaritze finalistarako.

1. Udalerrien eta toki-erakundearen segmentazioa ezartzen da, erroldatze-bolumena eta erregistratutako langabeziaren ehunekoa kontuan hartuta:
 - - 10.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerrriak eta toki-erakundeak (% 10etik gorako langabezia-tasa)
 - - 20.001 eta 50.000 biztanle arteko udalerrriak eta toki-erakundeak:
 - - 50.001 eta 100.000 biztanle arteko udalerrriak eta toki-erakundeak:
 - - 100.001 eta 200.000 biztanle arteko udalerrriak eta toki-erakundeak:
 - - 200.000 biztanletik gorako udalerrriak eta toki-erakundeak
2. Honako hauek hartzen dira erreferentzia-irizpidetzat (ez dira finalistak) Planaren prestaketari eta jarraipenari lotutako urteroko gastuetarako:
 - Egitearen eta baliabide materialen kostuak: 23.000 euro

- Langile-kostua: 104.095 euro.
3. Lotutako gastuen gaineko koefiziente zuzentzaile bat aurreikusten da, udalerrien eta toki-erakundeen biztanleriaren arabera, dagozkien planen konplexutasuna kontuan hartuta:
- 10.000-20.000 biztanle. Koefizientea = 1
 - 20.001-50.000 biztanle. Koefizientea = 1,4
 - 50.001-100.000 biztanle. Koefizientea = 1,8
 - 100.001-200.000 biztanle. Koefizientea = 2,3
 - 200.000 biztanle baino gehiago. Koefizientea = 3

Gastu unitarioaren zenbatekoa (1. koefizientea) 127.095 euro izango litzateke, zenbateko hori Euskadiko udalerriei eta toki-erakundeei aplikatuta:

- - 200.000 biztanletik gorako 3 udalerrri eta toki-erakunde: 1.143.855 euro
- 100.001 eta 200.000 biztanle arteko 1 udalerrri eta toki-erakunde: 292.319 euro
- 50.001 eta 100.000 biztanle arteko 5 udalerrri eta toki-erakunde: 1.143.855 euro
- 20.001 eta 50.000 biztanle arteko 14 udalerrri eta toki-erakunde: 2.491.062 euro
- 10.000 eta 20.000 biztanle arteko 17 udalerrri eta toki-erakunde: 2.160.615 euro

Banaka hartuta Funtserako irispidea duten udalerriz osatutako toki-erakundeentzako konpentsazio-irispidea aplikatuta (% 20), eragindako lau toki-erakunde dira (1, 200.000 biztanletik gorakoa; 2, 50.001 eta 100.000 biztanle artekoak, eta 1, 20.001 eta 50.000 biztanle artekoa). Kontuan hartu beharreko gastua: 203.352

c.3. Parte-hartzea

Enpleguaren Euskal Legeak parte hartzeko organo bat aurreikusi du, Enpleguaren Euskal Foroa. Bertan parte hartuko dute enplegu- eta prestakuntza-politikei lotutako jardueretan zerikusia duten agenteek. Enpleguaren arloan eskumena duen sailari atxikita dago, eta eginkizun zabalak ditu, parte-hartze adierazgarri eta pluraleko konpromisoa gauzatzen dutenak. Bileren aldizkakotasuna handia ez bada ere (urtean behin gutxienez), baliabide espezifikokoak behar dira funtzioak betetzeko eta, bereziki, kideen eta bileren sostengu eta dinamizatorako.

c.3.1. 71. eta 72. artikulua. Enpleguaren Euskal Foroa eta bere eginkizunak. Urteko eragin ekonomikoa: 30.125 euro

Euskarri tekniko horren eragin ekonomikoari dagokionez, kalkulua da egiturazko dotazio bat sartzea, lanaldi erdikoa. 25 III-C mailako teknikarien soldata-kostu eguneratua aplikatuko zaio, eta horren emaitzak markatuko du eragin ekonomikoa. Langile hori enpleguaren arloan eskumena duen sailaren egiturazko plantillan sartuko litzateke.

d. Euskal Enplegu Sarearen enplegu-politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren ikerketa, berrikuntza eta ebaluazioa. Arauaren V. titulua.

Arauaren titulu horrek bi artikulua ditu, eragin ekonomikoari buruz hausnartzeko. Ikerketa eta berrikuntza, 75. artikuluan, eta ebaluazioa, 76. artikuluan

d.1. 75. artikulua. Ikerketa eta berrikuntza Urteko eragin ekonomikoa: 30.125 euro

Gure iritzia da enpleguaren arloan eskumena duen sailak bere egituran hartu behar duela eginkizun horren garapena. Eragin ekonomikoari dagokionez, kalkulua da egiturazko dotazio bat sartzea, lanaldi erdikoa. 25 III-C mailako teknikarien soldata-kostu eguneratua aplikatuko zaio. Lanaldi osoko dotazio bat osatuko luke c.3.1 puntuan azaldutakoarekin. 71 eta 72. artikulua. Enpleguaren Euskal Foroa eta bere eginkizunak.

d.2. 76. artikulua. Ebaluazioa. Urteko eragin ekonomikoa: 180.750 euro.

Enplegu-politika publikoak eta Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa ebaluatzeko funtzioaren eragin ekonomikoa aztertzean, kontuan hartu behar dira 76. artikuluan deskribatutako ezaugarriak, bai eta Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legearen aldaketa ere (azken xedapenetatik lehenengoan jaso); izan ere, azken xedapen horrek aldatu egiten du arau horretan sortutako ebaluazio-, ikerketa- eta berrikuntza-organoa, eta, funtsean, enplegu-politiken eremura gehitzen ditu haren eginkizunak.

Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legean proposatutako egitura kontuan hartuta, eta enplegu-politikek eremu funtzional gisa duten konplexutasun erantsia ikusita, eragin ekonomikoa hau kalkulatu da: aipatutako organorako proposatutako egituraren profil teknikoko 3 dotazio sartzea. 25 III-C mailako teknikarien soldata-kostu eguneratua aplikatuko zaio.

e. LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua. Arauaren VI. titulua.

e.1. 77. artikulua. Sorrera, izaera, egoitza eta araubide juridikoa, funtzionamenduko lehenengo urterako. Eragin ekonomikoa: 800.000 euro.

Arau honen VI. tituluak dakarren eragin ekonomikoari buruzko hausnarketan ardatza Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publiko gisa eratzean datza.

Gaur egun, LANBIDEk organismo autonomoaren figura juridikoa du; hain zuzen ere, figura juridikoa zuzenbide pribatuko ente publikora aldatzean daude eragin ekonomikoaren ondorio handienak.

Figura juridikoa aldatzeak eraldaketa sakonak dakartza funtzio-, administrazio- eta prozedura-eremuetan. Zuzenbide pribatuko ente publiko izatera aldatzeak honako eremu hauetan izango du eragina:

- Ekonomikoa eta aurrekontukoa. Kontabilitate publikoaren betebeharez gain, kontabilitate pribatuaren eta analitikoaren berezko betebeharrak ere sartu behar dira.
- Langileak. Tresna eta erreminta propioak beharko dira langileen kudeaketarako.
- Kontratazioa. Kontratazio-prozedura ezberdinak.
- Informatika eta komunikazioak. Kudeaketa autonomoa edo EJE sozietate publikoarekiko harreman espezifiko desberdina.

Euskal Administrazio Orokorrean ez da egoera hori gertatu den kasurik identifikatu, eta, beraz, zaila da eragin ekonomikoaren zenbatespena egitea, antzeko esperientzietan oinarrituta. Hala ere, kontuan hartuta zer eremutan identifikatzen diren figura juridikoaren aldaketatik eratorritako jarduerak, arrazoizkoa da pentsatzea zerbitzu espezializatuak eduki behar direla funtzioen eta prozesuen definiziorako, eta aplikazioak egin eta mantentzeko lanetarako, LANBIDEk bere prozesuak kudeatzeko tresnak izan ditzan: ekonomia- eta aurrekontu-baliabideak, langileak, kontratazioa, informatika eta komunikazioak.

Figura juridikoa aldatzen den urterako, 800.000 euroko eragin ekonomikoa kalkulatu da, aholkularitza espezializatuko zerbitzuetarako.

Eragin ekonomikoaren laburpen-laukia

Artikuluak	Deskripzioa	Aldizk.	Zenbatekoa
15	Enpleguaren Euskal Sarea sortu eta abiarazteari lotutako gastuak	Lehen urtea	500.000
22	Enpleguaren Euskal Sareko erakunde eta zerbitzuen Mapa prestatzeari lotutako gastuak	Lehen urtea	100.000
24	Orientazio Zerbitzua, enplegu-zentroen egokitzeari eta baliabide materialei lotutako gastuak	Lehen urtea	200.000
51 eta 52	Ikuskatze-ahala egikaritzeko dotazioei lotutako gastuak	Urtekoa	180.750
63	Enpleguaren Euskal Sarearen organoak: aholkularitza-funtzioetarako dotazioei lotutako gastuak	Urtekoa	241.000
70	Enplegurako eta Toki Garapenerako Lankidetzaren Funtserako finantzaketa	Urtekoa	7.435.058
71 eta 72	Enpleguaren Euskal Foroa: aholkularitzarako eta dinamizatorako dotazioei lotutako gastuak	Urtekoa	30.125
75	Ikerketa- eta berrikuntza-funtzioak garatzeko dotazioei lotutako gastuak	Urtekoa	30.125
76	Ebaluazio-, ikerketa- eta berrikuntza-organoen dotazioei lotutako gastuak	Urtekoa	180.750
77	LANBIDEren tresnak eta prozesuak eraldatzeari lotutako gastuak	Lehen urtea	800.000
		Guztira	9.697.808

5. Proposatutako xedapena hartuko duen aurrekontuko programa ekonomikoaren deskripzioa

Enpleguaren Euskal Legearekin lotutako prestazio ekonomikoen kudeaketa aurrekontu-programa hauei lotuta dago:

- 3211 programa: Enplegua
- 3231 programa: Prestakuntza
- 3110 Programa: Egitura eta laguntza,

enpleguaren arloan eskumena duen sailarena eta LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuarena.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 13a

Alfonso Gurpegui Ruiz

Francisco Pedraza Moreno

Enplegu eta Gizarteratzeko sailburuordea

Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendaria